

CIHMA

*Barakaldoko Historia eta Ingurugiroa
Interpretatzeko Zentroa*

“IBILBIDE GIDATUAK” DOSIERRA
Baldintzak eta beharrak

7. BARAKALDO ERDI AROTIK GAUR EGUNERA ARTE

Ibilbidearen ezaugarriak:

Barakaldoren erdialdean oinez egiten den ibilbide gidatua da. Barakaldoko historian enblematikoak eta esanguratsuak izan diren eraikinen inguruko azalpenak entzungo ditugu, udalerriko historia ezagutzeko eta ulertzeko lagungarri izango ditugunak.

Ordua eta hasiera-amaiera lekua: Clara Campoamor Kultur Etxean 10,55ean hasi eta San Jose elizan 13,00etan amaituko da.

Gehienezko pertsona kopurua: 50 pertsona.

Baldintzak: Bat ere ez.

8. EZAGUTU BARAKALDO INDUSTRIALA

Ibilbidearen ezaugarriak: Itsadarretik itsasontziz egingo diren bisita gidatuak dira. Barakaldok izan zuen industriaren nagusitasuna antzeman ahal izango dugu, eta azalpenek industria garaiko ikuspegitik gerora eramango gaituzte.

Ordua eta hasiera-amaiera lekua: 10,55ean Portuko dartsenan, eskuinaldera pasatzeko txalupa hartu beharko dugu. Ibilbidea leku berean amaituko da 13,00etan.

Gehienezko pertsona kopurua: 50 pertsona.

Baldintzak: Bat ere ez.

* Ibilbide honekin batera, nahi izanez gero, Hartu Emanak elkarteak aurrez egiten duen irudi-muntaian parte hartzeko aukera dago, apirilaren 14an eta maiatzaren 19an, 18:00etatik 20:00etara Clara Campoamor Kultur Etxean.

9. AGATE DEUNA ETA LARRAZABAL ESKOLAK

Ibilbidearen ezaugarriak: Agate Deuna basiliza garrantzitsuan hasi, erdi aroko galtzadatik (Santiago bidea) eta Larrazabal auzoko aintzinako eskolatik (garai hartako ikasgela bat ikusteko aukera) igaro ondoren deabruaren zubian (Kastrexana) amaituko da: jaitsiera ederra, Kadaguaren alde barakaldarretik, natura arnasteko eta bisitatutako lekuen garrantzi historikoaz ohartarazteko aukera paregabea.

Ordua eta hasiera-amaiera lekua: 9,55ean Barakaldoko Landeta kalean dagoen autobus geltokian (epaitegiaren ondoan). Ibilaldia leku berean amaituko da 14,00etan.

Gehienezko pertsona kopurua: 30 pertsona.

Baldintzak: Ibilbide erraza den arren, jantzi eta oinetako erosoak eramatea komeni da.

10.ERREKATXO-URDANDEGIETA

Ibilbidearen ezaugarriak: Ibilbide borobila da, eta urtegi zaharra (Etxebarriakoa) inguratzen du. Castaños ibaiaren inguruko ibilbide honetan, mendizaleek nahiko ongi kontserbatutako naturaz gozatzeko, baita ingurune naturala –bai alderdi historikoa, bai ingurumen-alderdia- hobeto ezagutzeko aukera izango dute.

Ordua eta hasiera-amaiera lekua: 9,50ean Herriko Plazako Bizkaibus geltokian (farmaziaren ondoan). Ibilaldia leku berean amaituko da 14,00etan.

Gehienezko pertsona kopurua: 25 pertsona.

Baldintzak: Zailtasuna: ertaina (jantzi eta oinetako erosoak ekarri behar dira, mendikoak).

11.ISMAEL GOROSTIZA

Ibilbidearen ezaugarriak: Ibilbide osoan zehar arkitektuaren obra eta obrak Barakaldoko herritarren bilakaeran zenbateko garrantzia izan duen azaltzen ahaleginduko gara.

Bisitaldi gune zenbait sortu ditugu eta horrela, obra osoaren ulermena erabatekoa izango da: zerbitzuetarako eraikinak, auzotarren etxebizitzak, eraikin atxikiak, eta abar.

Ordua eta hasiera-amaiera lekua: 10:55 orenetan, Bide Onera plazan, Bide Onera kooperatibaren eraikinaren aurrean. Leku berera itzuliko gara 13:00etan.

Gehienezko pertsona kopurua: 30 pertsona.

Baldintzak: Bat ere ez.

12.LORATEGI BOTANIKOA EZAGUTUZ

Ibilbidearen ezaugarriak: Bisitaldi gidatuak egingo dira lorategi botanikotik (oinez egingo da ibilbidea). Barakaldo erdian, murgildu mundu berde batean, eta goza ezazu bertoko eta kanpoko zuhaitz eta landare espezieen aniztasunaz.

Ordua eta hasiera-amaiera lekua: 11,25ean Barakaldoko Lorategi Botanikoaren sarreran, Gernikako Arbola kalean, informazio-etxolaren ondoan. Bisitaldia leku berean amaituko da 13,00etan.

Gehienezko pertsona kopurua: 25 pertsona.

Baldintzak: Bat ere ez.

Ibilbideetako edozeinetarako, ibilbidearen eguna baino hilabete aurretik, pertsona bakoitzak gehienez 6 gonbidapen hartzea komeni dela uste dugu, zeren lehenago hartuz gero, beste konpromiso batzuk sor daitezke, eta ahaztu, ibilbide horretarako izena emana dugula.